

GIG 17

SELANDIARREKO OINAZPIKO ESTRATOTIPOA

BALIO INTRINTSEKOA: 4

BALIAGARRITASUN-MAILA: 3,50

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Daniarraren eta Selandiarren arteko muga (GSSP) aldaketa litologiko handi batek zehazten du; oso karetsua den Aitzgorri formazioaren eta oinarri guztiz buztintsua duen Itzurun formazioaren arteko bereizketak, hain zuzen ere. Muga hori duela 61,1 milioi urtekoatza jo da. Horrez gain, mikrofauna planktonikoan izandako aldaketa txiki batzuek definitzen dute muga hori, bai eta karbono 13 isotopoaren minimo erlatibo batek ere.

Arroka karetsuetatik arroka buztintsuagoetarako bat-bateko aldaketa litologiko hori itsas mailaren 40-80 metro bitarteko jaitsieratzat jotzen da, eta jaitsiera hori, dirudienez, itsas hondoen hondoratze tektoniko batekin dago lotuta (arro osoan hautematen da hondoratze hori). Anomalia biotikoek eta isotopikoek, berriz, gaur egun zehaztu gabe dagoen aldaketa ozeanografiko globalen bat izan zela adierazten dute.

2010. urteko maiatzaren 6an, International Commission on Stratigraphy erakundeko kide batek urrezko iltzea jarri zuen Zumaian, muga horren estratotipoa dela adierazteko; hots, munduko mugaredua dela adierazteko. Horrenbestez, hondartza horrek Lurraren historian berebiziko garrantzia duela esan daiteke. Nazioartean, GSSP (Global Stratotype Section and Point) esaten zaio estratotipoari, eta urre-koloreko iltze baten eta identifikazio-plaka baten bidez dago adierazita.

NOLA BERTARATU

Selandiarreko oinazpiko estratotipoa San Telmo ermitari eusten dion hormatzarraren azpialdean dago, Itzurun hondartzaren hego-mendebaldeko ertzean. Hondartzara jaitsi eta ezkererantz joan behar da oinez, identifikazio-plaka ikusi arte.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Selandiarreko estratotipoa aldaketa litologiko garrantzitsu batek zehazten du.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 559887 m / Y= 4794293 m / Alt.= 7 m



Nazioarteko estratotipoa adierazten duten plaka eta urre-koloreko iltzea, gertutik ikusita.